Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 25a, asteazkena — 143 — Miércoles, a 25 de julio de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak kudeatutako kultura hedatu eta sustatzeko laguntzak arautzeko oinarriak.*

Diputatuen Kontseiluak, 2018ko uztailaren 10ean egindako batzarraldian, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Gipuzkoan arte eta kultura arloan jarduerak aurrera eramaten dituzten kultur eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetza harremanak indartu nahi ditu eta, hori horrela, diru laguntza lerro bat ipini du martxan kultura hedatu eta sustatzeko, zentzurik zabalenean ulertuta: arte eszenikoak, jaialdiak, ikerketa edo kultur ondarea hedatzeko jarduerak.

Erabaki honen bidez, Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako laguntza programa horiei dagozkien oinarri arautzaile orokorrak eta berariazko oinarriak onartzen dira, ekintza ezberdinak jasotzen dituztenak, helburu eta onuradun askotarikoak, hala nola: arte eszenikoen alorrean konpainiek antzerki eta dantza ikuskizunak sustatu eta saltzeko egitasmoak laguntzeko, Euskadiko Antzoki Sareko antzokien programazioa iraunkorrerako eta Gipuzkoan gauzatzen diren ikus-entzunezko proiektuak ekoiztu eta hedatzeko.

Aipatutako diru laguntza lerroak Diputatuen Kontseiluak 2018ko martxoaren 27ko bileran onartutako 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren barne daude.

Horiek horrela, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Jarraian aipatzen diren diru laguntza lerroen oinarri arautzaile orokorrak, hala nola, bakoitzari dagozkion berariazko oinarriak, onartzea:

1. Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko eta arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza programak dituzten Gipuzkoako konpainia eszenikoei (antzerkia eta dantza) zuzendutako diru laguntzak.

2. Gipuzkoako udalerrietan arte eszenikoen eta musikaren alorretako emanaldien urteko programazioa eta arte eszenikoen sustapen egitasmoak garatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei zuzendutako diru laguntzak (Euskadiko Antzoki Sarea).

3. Gipuzkoan egindako ikus-entzunezko proiektuak ekoiztu eta hedatzeko diru laguntzak.

Aipatutako oinarri arautzaileak erabaki honen eranskin gisa jaso dira.

*Bigarren.* Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Bases reguladoras de las ayudas para la difusión y promoción cultural gestionadas por el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.*

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 10 de julio de 2018 ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

La Dirección General de Cultura, buscando reforzar los canales de cooperación con los agentes culturales públicos y privados que lleven a cabo actividades en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el ámbito de las artes y la cultura, establece una serie de líneas de ayudas para la difusión y promoción cultural, entendida en su sentido más amplio, como las artes escénicas, los festivales, la investigación o la difusión del patrimonio cultural.

Por el presente acuerdo se aprueban las bases generales y específicas de las siguientes líneas de ayudas gestionadas por la Dirección General de Cultura. Líneas que abarcan diversas acciones, con diferentes destinatarios/as y objetivos, como son: la promoción y venta de espectáculos de teatro y danza por parte de las compañías, la programación estable de los teatros integrados en Euskadiko Antzoki Sarea y la producción y difusión de proyectos audiovisuales realizados en Gipuzkoa.

Dichas líneas de subvención se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 27 de marzo de 2018.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo Juventud y Deportes, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales de las siguientes líneas de subvenciones, así como las específicas correspondientes a cada una de ellas:

1. Subvenciones a compañías escénicas (de teatro y danza) de Gipuzkoa, para la promoción y venta de espectáculos escénicos y programas de sensibilización, formación y mediación en el área de las artes escénicas.

2. Subvenciones a ayuntamientos y entidades culturales sin ánimo de lucro, para la programación anual de artes escénicas y música y programas de promoción de las artes escénicas de los municipios guipuzcoanos (Euskadiko Antzoki Sarea).

3. Subvenciones a la producción y difusión de proyectos audiovisuales realizados en Gipuzkoa.

Dichas bases reguladoras se adjuntan como anexo al presente acuerdo.

*Segundo.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2018-05303

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2018ko uztailaren 19a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (5303)

ERANSKINA

*Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programa batzuen kontura emango diren diru laguntzen oinarri arautzaileak.*

OINARRI OROKORRAK

*1. Diru laguntza eskatzeko baldintzak.*

1. Diru laguntza hauen onuradun izaera izango du diru laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota diru laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen onuradun ezin dira izan martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak. Ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak ezarritakoari jarraikiz, sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenak ere.

3. Onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez egoteari buruzko egiaztapena egin dezakete pertsonek edo erakundeek lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez, kasuen arabera; eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, ordeztu daitezke herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako ardurapeko aitorpenaren bitartez.

*2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

1. Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundu asmo den jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa gainditu.

2. Langileen gastuak diruz lagungarriak izango dira, diru laguntzaren xedea betetzeko beharrezko gastutzat hartzen direnean.

3. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak 15.000 euro gainditzen baditu, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu behar ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik: non eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz merkatuan ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko nahiko enpresa ez dagoen; edota gastua egin den diru laguntza eskatu aurretik.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sabastián, a 19 de julio de 2018.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (5303)

ANEXO

*Bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a varios de los programas gestionados por la Dirección General de Cultura.*

BASES GENERALES

*1. Requisitos para solicitar las subvenciones.*

1. Tendrá la consideración de beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que haya de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión y que, además, reúna los requisitos específicos establecidos para cada línea de subvención en su respectivo anexo.

2. No podrán obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones reguladas en estas bases las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni quienes se hallen incursas en prohibición legal o inhabilitación por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3. La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable otorgada ante una administración pública o notaría.

*2. Gastos subvencionables.*

1. Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en estas bases, aquéllos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras específicas de las subvenciones. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2. Los gastos de personal de la entidad beneficiaria serán objeto de subvención, siempre que sean gastos necesarios para el cumplimiento del objeto de la subvención.

3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 15.000 euros, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

EK\CV GAO-I-2018-05303

Aurkeztutako enpresen arteko hautaketa, zuribidean edo, horrela bada, diru laguntzaren eskaeran adierazita, eraginkortasunari eta ekonomiari begira egin behar da; eta hautaketa proposamen ekonomiko merkeenaren aldekoa ez denean, berariazko memoria batean zuritu behar da.

4. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera egiteko finantza gastuak, zuzenbide edo finantza aholkularitzako gastuak, notario eta erregistro gastuak, eta peritu gastuak nahiz administrazioko gastu bereziak diruz lagungarriak izan daitezke subentzionatutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta hura egoki prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira.

5. Zeharkako kostuak. Proiektuari zeharkako kostuen % 5 leporatzea onartuko da. Gastu horiek onartuko dira, soil-soilik, gastuen aurrekontuan berariaz izendaturik aurkezten badira.

Zeharkako kostu horiek modu eraginkorrean egin behar dira, diruz lagundutako proiektuarekin lotura zuzena izan behar dute, eta behar bezala egiaztatu behar dira.

Halaber, zeharkako kostuetan portzentaje handiagoa onartu ahal izango da, betiere diruz lagundutako aurrekontuari egozten zaion portzentaje hori finkatzeko kostuen kalkulua behar bezala egiaztatzen bada, eta aurretik aipatutako baldintzak betetzen badira.

*3. Eskaerak.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Eskaerak, Kultura Zuzendaritza Nagusiak deialdi bakoitzean emandako ereduaren arabera, eta ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztu beharko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus helbidean) barrena, diru laguntzen atarian sartu eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko inprimakia erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria Internetez aurkezterakoan Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14.2 eta 68.4 artikuluak ezarritakoari jarraituz.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) eskuragarri egongo dira.

3. Eskaera orri normalizatuekin batera, agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

a) Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiriaren fotokopia (nortasun agiria, dagokion erregistroan inskribatutako eraketa eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria eta abar).

b) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.

c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horien ordez, interesatuek adierazpen bat izenpetu dezakete: berariazko baimena emanez ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren esku utz ditzaten.

Eskatzailea udala edo toki erakunde bat denean, ardurapeko aitorpena aurkeztea nahikoa izango da.

d) Eskatzaileak onuradun izateko eragozpenik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, ardurapeko aitorpena. Eredua eskura daiteke Kultura Zuzendaritza Nagusian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus), diru laguntzen atarian.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

4. Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto o actividad subvencionada y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma.

5. Costes indirectos. Se admitirá la imputación al proyecto del 5 % de los costes indirectos. La admisión de estos gastos requerirá que se hayan consignado de forma expresa en el presupuesto de gastos admitido.

Los costes indirectos deberán realizarse de forma efectiva, tener relación directa con el proyecto concedido y acreditarse.

Asimismo, se podrá admitir un porcentaje superior de costes indirectos, si se acreditan suficientemente los cálculos de costes realizados para la determinación del porcentaje que se imputa al presupuesto subvencionado, y se cumplen los requisitos anteriores.

*3. Solicitudes.*

1. El procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección General de Cultura en cada convocatoria, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus) accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria vía Internet se realizará en los términos previstos en el artículo 14.2 y 68.4 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica https://egoitza.gipuzkoa.eus.

3. Junto con los impresos normalizados de solicitud, las personas o entidades solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

a) Fotocopia del documento acreditativo de la personalidad de la persona o entidad solicitante (DNI, escrituras de constitución inscritas en el registro correspondiente, certificado emitido por el registro correspondiente, etc.).

b) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

c) Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A este respecto, las personas o entidades interesadas podrán suscribir una declaración en la que manifiesten su consentimiento expreso a que las entidades que deben expedir tales certificados cedan los datos que deban figurar en los mismos a la Dirección General de Cultura.

Si los solicitantes son ayuntamientos o entidades locales, será suficiente la presentación de una declaración responsable a estos efectos.

d) Testimonio, certificados o, en su caso, declaración responsable de no concurrir en el o la solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria. Se podrá utilizar el modelo disponible en la Dirección General de Cultura, y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), portal de subvenciones.

EK\CV GAO-I-2018-05303

e) Eskatzaileak irekitako kontu korronte baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria. Agiri hori aurkeztu beharko da, bakar-bakarrik, diru laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

f) Diru laguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txosten zehatza.

g) Proiektuaren, programaren edo jardueraren gastu eta diru sarreren aurrekontu zehatza. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreren eta gastuen kopuruak berdinak izango dira, eta diru-sarreren atalean eskatzen duen kopurua zehaztu beharko da.

4. Eskatzen diren agirietakoren batzuk Administrazio Publikoen esku baldin badaude, atxikipenaren eskatzaileak erabil dezake Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 53.1. artikuluko d) paragrafoan xedatuta dagoena, betiere agiriak zein egun eta zein organoren aurrean aurkeztu ziren adierazita, edo agiriak zein organok eman zituen adierazita.

5. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesatuari hamar laneguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe hori amaituta horrela egiten ez badu, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

6. Eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*4. Emateko prozedura.*

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira. Ondorioz, kasu bakoitzean ezarritako balorazio irizpideen arabera, diruz lagundu nahi diren jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko eskaera kopurua hautatuko da berariazko oinarri bakoitzean jasotako balorazio irizpideak eta baztertzeak kontuan izanik.

*5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.*

1. Diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileek diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioaren zenbateko bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako ekarpen propioa egiaztatu beharko da jardueran izandako gainerako gastuen gisa berean.

2. Diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. oinarri hauetan arautukako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak bateragarriak dira estatuak emandako laguntzekin, Europako Batzordeak 2014ko ekainaren 17an emandako 651/2014 Erregelamenduaren 53.2.d) artikuluaren arabera, hor jasotzen baitira barne merkatuarekin bateragarriak diren laguntza mota batzuk, EBFI, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108. artikuluetan jasotzen dena aplikatuz (EBEO, L 352 zk., 2013-12-24koa).

*6. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzen zenbatekoak diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarrietan aipatzen direnak izango dira.

e) Documento que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta.

f) Informe explicativo del proyecto, programa o actividad para el que se solicita la ayuda.

g) Presupuesto detallado de los ingresos y gastos del proyecto, programa o actividad. Deberá ser un presupuesto equilibrado en el que la suma total de ingresos y la de gastos sean equivalentes, precisando en el apartado de ingresos el importe de subvención que se solicita.

4. En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de las Administraciones Públicas, quien solicite la adhesión podrá acogerse a lo establecido en el artículo 53. 1. d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que haga constar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos o qué órgano emitió los documentos.

5. Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a las entidades interesadas un plazo de diez días hábiles para subsanar los defectos detectados, transcurrido el cual sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidas de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

6. Los plazos de presentación de solicitudes se concretarán en la convocatoria anual.

*4. Procedimiento de concesión.*

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan solo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de solicitudes que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionadas, de acuerdo con los criterios de valoración y exclusiones recogidas en las distintas bases especificas.

*5. Financiación de las actividades subvencionadas.*

1. Las bases reguladoras específicas de cada línea de subvención podrán exigir un importe de financiación propia para cubrir la actividad subvencionada. La aportación de fondos propios a la actividad subvencionada habrá de ser acreditada de la misma forma que los gastos habidos en dicha actividad.

2. Salvo que las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones dispongan lo contrario, las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

3. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Las subvenciones contempladas en las presentes bases son ayudas compatibles con las ayudas de estado según el artículo 53.2.d) del Reglamento 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior, en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) (DOUE, L n.º 352, de 24/12/2013).

*6. Cuantía de las subvenciones.*

Las cuantías de las subvenciones serán las indicadas en las bases específicas correspondientes a cada línea de ayudas.

EK\CV GAO-I-2018-05303

*7. Izapidea.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura izapidetzea Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak burutzea ebazpen proposamena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

2. Izapidetze fasea hasiko da eskaera bakoitzaz Idazkaritza Teknikoak egingo duen aurre ebaluazioaz: hori da eskatzaileak diru laguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela egiaztatzea.

3. Kulturako zuzendari nagusiak bere zuzendaritzari atxikitako teknikari bat eta egoki deritzon kanpo aholkulariak izendatuko ditu (izendapenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira) diru laguntza lerro bakoitzean aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egin dezaten, berariazko oinarri arautzaileetan beste administrazio organoren baten txostena behar dela ezartzen ez badu.

4. Eskaerak ebaluatu ondoren, Kultura zuzendari nagusiak, zuzendaritza bereko zerbitzuburua edo unitate buru bat eta teknikari batek osatutako ebaluazio batzordeak ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta; eta organo eskumendunari aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

5. Ebaluazioaren emaitza diru laguntza ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesatuei 10 eguneko epea eskainiko zaie (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena) entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

*8. Ebazpena.*

1. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak ebatziko du deialdia, foru agindu bidez.

2. Ebazpena arrazoituko da diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera: hau da, bertan ezarritako irizpide objektiboen arabera.

3. Diru laguntza emateko ebazpenak espresuki jaso beharko ditu honako hauek: Diru laguntzaren xedea, onuraduna edo onuradunen zerrenda, zenbatekoa, ordainketa erak eta epeak, eta diru laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak.

4. Prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da, kasu bakoitzean, eskaerak aurkezteko epea hasten denetik aurrera.

5 Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak emateko jardunbidearen barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 25.1.a. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus), diru laguntzen atarian argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Edozein kasutan, lege ondorioetarako eraginik ez badu ere, ondoko bitartekoren baten edo batzuen bidez ere jakinarazteko saioa egingo da: ebazpena

*7. Instrucción.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde a la Dirección General de Cultura, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

2. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que realice la Secretaría Técnica de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de la persona solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

3. El director o directora general de Cultura designará un técnico o técnica adscrita a la dirección y a los asesores externos que estime oportunos, cuyos nombres serán publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que emitan informe de valoración de las solicitudes de cada línea de subvenciones, salvo que las bases reguladoras específicas establezcan que las solicitudes sean informadas por otro órgano administrativo.

4. Una vez evaluadas las solicitudes, la propuesta de resolución del procedimiento se efectuará por una comisión evaluadora formada por el Director o Directora General de Cultura, un jefe o jefa de Servicio o Unidad de la Dirección General de Cultura y un técnico o técnica de la misma Dirección. La comisión evaluadora formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será elevada al órgano competente para resolver.

5. Cuando la evaluación efectuada resulte desfavorable respecto de la concesión de subvención, de modo previo a dictar la resolución correspondiente, se otorgará a las personas o entidades interesadas trámite de audiencia que será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 10 días para formular alegaciones.

*8. Resolución.*

1. El diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes resolverá la concesión mediante orden foral.

2. La resolución se motivará de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen las correspondientes líneas de subvención.

3. En la resolución de concesión de la subvención se deberá hacer constar expresamente el objeto, las personas o entidades solicitantes a las que se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones.

4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará, en cada caso, a partir del inicio del plazo de presentación de solicitudes.

5. En relación con el procedimiento de concesión de las subvenciones objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 25.1.a de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

6. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 41.1 de la la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de concesión será objeto de publicación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), portal de subvenciones, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación. Sin que la falta de su constancia obste a la producción de dichos efectos, se procurará informar a las entidades interesa-

departamentuko web orrian sartuz, edo posta elektronikoz, telefonoz, faxez. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

*9. Onuradunen betebeharrak.*

1. Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, eta hori garatzeko erregelamenduak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoak) ezarritako betekizunez gain, oinarri orokor hauetan eta diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan aurreikusitakoak bete beharko dituzte onuradunek.

2. Bereziki, diru laguntzaren xedeko jarduerei buruzko publizitatean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren lankidetza adieraziko da, euskarari lehentasuna emanez.

3. Halaber, Euskararen erabilera normalizatzeko planak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako, xedatutakoaren arabera eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeari jarraikiz, diru laguntzak jasotzen dituzten pertsona edo entitateek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jarduerekin lotuta dauden agerpen publiko orotan.

4. Diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko dokumentazioan eta materialetan, hizkeraren erabilera ez-sexista egin beharko dute, emakumea diskriminatzen duten irudiak saihestu eta berdintasunaren, aniztasunaren, askotariko eginkizunen eta erantzunkidetasunaren irudia sustatu.

5. Diruz lagundutako proiektuaren xehetasunak eta norainokoa aurkeztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko titularrarekin batera –eta proiektuak dituen gainerako kideekin, hala dagokionean–, bi alderdiek adostutako modu eta formatuak erabilita. Halaber, nahiz eta Aldundiko beste kide batzuek parte hartzeko aukera izan, diru laguntza ematen duen departamentuaren ordezkari bat izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria programa honen sustapenari lotutako ekitaldi formaletan. Gainera, lankidetzaren edo proiektuaren emaitzari buruzko balantze publikoa egitearen egokitasuna aztertuko da programa bukatzen denean.

*10. Diru laguntzak ordaintzea.*

Oro har, diru laguntzak ordainduko dira diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala zuritu ostean, 11. oinarrian ezarritakoari jarraikiz zuritu ere.

Dena den, egiaztatzen bada diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa dela, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan.

*11. Diru laguntzak zuritzea.*

1. Arau orokor gisa, eta dagokion eranskinean ez bada beste formularik adierazten, diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez zuritu beharko da, oinarri honetan adierazten den eran eta epeetan.

Hemen ere Internet bidez aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) barrena, diru laguntzen atarian sartu eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko inprimakia erabiliz.

2. Diru laguntza ordaindu ahal izateko, agiri hauek aurkeztu behar dira aldez aurretik:

das también mediante alguno o algunos de los siguientes medios: inclusión de la resolución en la página web del departamento, correo electrónico, teléfono, fax También se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en los términos del artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*9. Obligaciones de las persona beneficiarias.*

1. Son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las señaladas en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril), las que se determinan en las presentes bases reguladoras y en las específicas de cada línea de subvenciones recogidas en los anexos.

2. En particular, en la publicidad que se realice sobre las actividades objeto de subvención, se hará constar la colaboración del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, prioritariamente en euskera.

3. Asimismo, en el marco del Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el periodo 2018-2022 y con arreglo a la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones deberán utilizar el euskera en las intervenciones públicas relacionadas con las actividades subvencionadas.

4. Deberán garantizar un uso no sexista del lenguaje en toda la documentación y materiales relacionados con las actividades y programas subvencionados, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y fomentar una imagen con valores de igualdad, diversidad, pluralidad de roles y corresponsabilidad.

5. Presentar públicamente junto al titular del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa –y resto de socios que en su caso cuente el proyecto– los detalles y alcance del proyecto subvencionado, en los términos y formatos que ambas partes convengan. Se garantizará que, sin perjuicio de la presencia de otros miembros de la Diputación, un/una representante del Departamento concedente de la subvención ostente la representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa en los actos formales vinculados a la promoción de este programa. Del mismo modo se analizará la conveniencia de realizar un balance público del resultado de la colaboración o del propio proyecto, al término del mismo.

*10. Abono de las subvenciones.*

Con carácter general, las subvenciones se abonarán a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base 11.ª

No obstante lo anterior, y previa acreditación de la necesidad de financiación para llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, podrán realizarse pagos anticipados en la forma en que se determine en la correspondiente resolución de concesión.

*11. Justificación de las subvenciones.*

1. Como norma general, y salvo que en el anexo respectivo se establezca alguna otra fórmula, la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se documentará de la manera y en el plazo que se indica en la presente base.

También en este caso de utilizará la vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos.

2. Previamente al abono de la subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

EK\CV GAO-I-2018-05303

a) Jarduketa memoria, diru laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira. Diru laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Gastu orokorrak eta zeharkakoak banatzeko irizpideak, % 5 baino gehiagoko portzentajea onartu behar bada.

e) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

f) Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak 15.000 euro gainditzen baditu, aurkeztu beharko dira gutxienez hiru hornitzaile desberdinei eskatutako eskaintzak zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik: non eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz merkatuan ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko nahiko enpresa ez dagoen; edota gastua egin den diru laguntza eskatu aurretik.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

Horien ordez, interesatuek adierazpen bat izenpetu dezakete: berariazko baimena emanez ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren esku utz ditzaten.

Eskatzailea udala edo toki erakunde bat denean, arduerapeko aitorpena aurkeztea nahikoa izango da.

3. Diru laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak, unitate moneta laginketa teknikak erabiliz. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

4. Oinarri honen 2. atalean adierazten diren agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da, diru laguntza bakoitzaren eranskinean beste epe bat xedatzen ez bada.

5. Diru laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru laguntzaren zuritzea egokia izan ote den, eta diru laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

*12. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.*

Onuradunak ezin du diruz lagundutako jardueraren % 75 baino gehiago azpikontratatu besterekin. Ezin dira inola ere azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handiagotu eta, aldi berean, haren edukiari balio erantsirik gehitzen ez dioten ekintzak.

*13. Diru laguntzak itzultzea.*

Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta diru laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluaren 1. eta 3. ataletan aurreikusitako kasuetan.

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos; se incluirán, cuando sea pertinente, los datos de participación diferenciados por sexo, así como, en la medida de lo posible, el análisis y la interpretación de los mismos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor o acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión, y en su caso fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con relación a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y su procedencia.

d) Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de gastos generales o indirectos, en el caso de que se vayan a aceptar en un porcentaje mayor que el 5 %.

e) Documentación gráfica o audiovisual que sirva para acreditar y testimoniar la labor realizada.

f) Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 15.000 euros, se deberán además presentar como mínimo tres ofertas solicitadas a diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

g) Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

A este respecto, las personas o entidades interesadas podrán suscribir una declaración en la que manifiesten su consentimiento expreso a que las entidades que deben expedir tales certificados cedan los datos que deban figurar en los mismos a la Dirección General de Cultura.

Si los solicitantes son ayuntamientos o entidades locales, será suficiente la presentación de una declaración responsable a estos efectos.

3. El órgano concedente comprobará a través de las técnicas de muestreo de unidades monetarias, los justificantes que estime oportunos y permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin requerirá a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gastos seleccionados.

4. El plazo para presentar la documentación referida en el apartado 2 finalizará el 1 de marzo del año siguiente al de la convocatoria, salvo que se indique otro plazo en el anexo correspondiente.

5. El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

*12. Subcontratación de las actividades subvencionadas.*

La actividad subvencionada que la persona beneficiaria subcontrate con terceros no excederá del 75 por ciento del importe de la misma. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

*13. Reintegro de subvenciones.*

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en los apartados 1 y 3 del artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2018-05303

*14. Dirua itzultzera behartuak.*

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuru horri dagozkion berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.

3. Halaber, jarduerei utzitako pertsona juridikoen lege ordezkaritza dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

*15. Araubide juridikoa.*

Oinarri orokor hauetan eta berariazkoetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek aplikatuko dira: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoa.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak honako honen pean daude: 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zk. Europako Batzordeko Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikuluak aplikatzekoa.

Diru laguntzen kontrol finantzarioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak VII. tituluko bosgarren kapituluan ezartzen duenaren arabera egingo da.

BERARIAZKO OINARRIAK

1. ERANSKINA

*Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko eta arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza programak dituzten Gipuzkoako konpainia eszenikoei (antzerkia eta dantza) diru laguntzak ematea arautzen duten oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea diru laguntzak ematea arautzea da, eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei, ikuskizunak sustatzeko eta saltzeko programek nahiz Gipuzkoan arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza programek sortuko dizkieten gastu ekonomikoak arintzearren.

*2. Eskatzaileak, diruz lagungarri diren jarduerak eta baldintzak.*

Diru laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte ondorengo baldintzak betetzen dituztenek:

— Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten pertsona fisiko nahiz juridiko-pribatuak izatea.

— Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, antzerki jarduerekin zer ikusia duen atalean izen emanda egotea, eta gainera, pertsona juridikoa denean bere helburu edo gizarte xedea antzerki edota dantza jarduerekin zer ikusia duena izatea.

— Azken bost urteetan gutxienez 3 eszena ikuskizun profesional ekoiztu eta zabaldu izatea eta deialdiko urtean aktibo izatea gutxienez deialdiaren aurreko urtean edo urtean bertan ekoiztutako antzezlan batekin.

*14. Obligación de reintegro.*

1. Las personas o entidades beneficiarias, en los casos contemplados en la base anterior, deberán reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas más los correspondientes intereses de demora. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

2. Responderán subsidiariamente de la obligación de reintegro las personas administradoras de las sociedades mercantiles, o quienes ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, que no realizasen los actos necesarios que fueran de su incumbencia para el cumplimiento de las obligaciones infringidas, adoptasen acuerdos que hicieran posibles los incumplimientos o consintieran el de quienes de ellos dependan.

3. Asimismo, quienes ostenten la representación legal de las personas jurídicas, de acuerdo con las disposiciones legales o estatutarias que les resulten de aplicación, que hayan cesado en sus actividades responderán subsidiariamente en todo caso de las obligaciones de reintegro de éstas.

*15. Régimen jurídico.*

Además de lo previsto en las presentes bases generales y en las específicas, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento, aprobado por el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Asimismo, será de aplicación el Reglamento (CE) n.º 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE).

El procedimiento de control financiero de las subvenciones será el establecido en el capítulo quinto del título VII de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

BASES ESPECÍFICAS

ANEXO 1

*Bases por las que se regula la concesión de subvenciones a compañías escénicas (de teatro y danza) de Gipuzkoa, para la promoción y venta de espectáculos escénicos y programas de sensibilización, formación y mediación en el área de las artes escénicas.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza), con el fin de paliar los gastos económicos producidos por los programas de promoción y venta de espectáculos, así como por los programas de sensibilización, formación y mediación en el área de las artes escénicas en Gipuzkoa.

*2. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.*

Podrán solicitar estas ayudas quienes cumplan los siguientes requisitos:

— Ser personas físicas o jurídico-privadas con domicilio social y fiscal en Gipuzkoa.

— Estar dadas de alta en el correspondiente epígrafe de las actividades teatrales del Impuesto de Actividades Económicas, y además, en el caso de las personas jurídicas, tener un objeto o fin social acorde con el desarrollo de actividades teatrales y/o de danza.

— Haber producido y exhibido un mínimo de 3 espectáculos escénicos profesionales en los últimos cinco años y estar en activo en el año de la convocatoria con un mínimo de una obra producida en el año anterior o en el de la convocatoria.

EK\CV GAO-I-2018-05303

Diru laguntzaren xede izango dira honako arloetako jarduerak:

2.1. Eskatzaileak ekoitzitako eszena ikuskizunen (antzerkia eta/edo dantza) sustapen eta salmenta.

2.2. Arte eszenikoen alorreko sentsibilizazio, prestakuntza edo bitartekaritza jarduerak Gipuzkoan.

Diru laguntzaren xede diren jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barnean burutu beharko dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

*3. Baztertzeak.*

Laguntza hauen eremutik kanpo gelditzen dira berariaz honako egitasmo eta ekintzak:

a) Diru laguntza izenduna xedatua dutenak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kutura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste diru laguntza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak.

c) Ekoizpen eszenikoak modu ez profesionalean egiten dituzten entitateak. Honela, ez profesionaltzat emango dira antzezlanen interpreteekin (aktore, dantzari) kontratu harremanik lotzen ez dutenak.

*4. Eskaerak baloratu eta diru laguntza ematea.*

Oinarri hauen baldintzak bete eta bigarren oinarrian aipatutako jarduerak gauzatzen dituzten pertsona edo entitateek diru laguntza bat lortu ahalko dute.

Diru laguntzaren zenbatekoa ondorengo irizpideen arabera kalkulatuko da:

a) Ikuskizunen sustapen eta salmentan osorik edo denbora batez jarduten den pertsonalaren kontratazio kostoaren % 70a, 15.000 euroko diru laguntza mugarekin. Atal honetan sartu ahal izango dira kontratatutako pertsonalaren nominak (Gizarte Segurantza barne) nahiz hirugarrenei egindako ordainketak.

b) Komunikazio gastuen edota sustapenera zuzendutako materialak gauzatzearen gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru laguntza. Atal honetan sar daitezke ondorengo gastuak: telefonoa, internet, kartelak, eskuprogramak, bideoak, webguneak (mantenua nahiz diseinua) eta antzekoak.

c) Arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekaritza lanetan erabiliko den gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru laguntza. Atal honetan sar daitezke ondorengo gastuak: ekintzen gastuak, hirugarrenei ordainketak, ostatua, espazioen alokairua, garraioak etab.

Aipatutako diru laguntzen gehienezko kopuruak % 50era mugatuko dira honako kasuetan

— Eskatzailea irabazi asmorik gabeko elkartea denean.

— Eskatzailea konpainia berri bat denean (deialdiaren aurreko lau urteetan zehar erregistratutakoa).

Aurrekontuak egiterakoan kontutan izateko oharra: Entitate eskatzaileak arte eszenikoez gain (antzerkia edota dantza) beste arlo batzu garatzen dituenean, musika edo beste batzu, aurrekontuan sartuko du soilik arte eszenikoen alorrei dagokion zatia. Era berean pertsona batek diruz lagungarriak direnetaz gain beste funtzio batzu betetzen dituenean, diruz lagungarri diren funtzioei dagokiona bakarrik jarriko da aurrekontuan.

Diru laguntzaren zenbatekoa ez da inoiz ere gastuen % 70 baino handiagoa izango, ez eta 21.000 eurotako kopurua baino handiagoa ere.

Las actividades subvencionables se enmarcarán en las siguientes áreas:

2.1. Promoción y venta de los espectáculos escénicos producidos por ellas mismas.

2.2. Sensibilización, formación o mediación en el área de las artes escénicas, en Gipuzkoa.

Las actividades objeto de la subvención deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

*3. Exclusiones.*

Quedan excluidos expresamente de estas ayudas los siguientes programas o actividades:

a) Los que sean objeto de subvención nominativa.

b) Los que tengan inclusión más adecuada o expresa en otras convocatorias de ayudas del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Las entidades que realicen producciones escénicas de modo no profesional. A este respecto se considerarán no profesionales a las entidades que no establezcan relación contractual con los ejecutantes (actores, bailarines) de las obras escénicas.

*4. Valoración de las solicitudes y concesión de la subvención.*

Las personas y entidades que cumplan los requisitos y realicen alguna de las actividades subvencionables mencionadas en la base 2, podrán optar a una subvención.

La subvención será el resultado de la suma de los siguientes conceptos:

a) El 70 % del coste de contratación del personal dedicado en total o en parte a la promoción y venta de los espectáculos, hasta un máximo de 15.000 euros de subvención. En este apartado se podrán incluir tanto las nóminas del personal contratado (incluyendo los gastos correspondientes a la Seguridad Social) como los pagos a terceros.

b) El 70 % de los gastos de comunicación y del coste de realización de materiales destinados a la promoción, hasta un máximo de 3.000 euros de subvención. En este apartado pueden incluirse gastos correspondientes a: telefonía, internet, carteles, folletos, videos, páginas web (mantenimiento y diseño) y similares.

c) El 70 % de los gastos destinados a realizar actividades de sensibilización, formación y mediación en el área de las artes escénicas, hasta un máximo de 3.000 euros de subvención. En este apartado se pueden incluir gastos directamente relacionados con las actividades, como pagos a terceros, alojamiento, alquiler de espacios, transportes etc.

Los importes máximos de subvención mencionados se reducirán al 50 % en los siguientes casos:

— Cuando el solicitante sea una asociación sin ánimo de lucro.

— Cuando sea una compañía emergente o de reciente creación (registrada en los últimos cuatro años anteriores a la convocatoria).

Al confeccionar el presupuesto, deberá tenerse en cuenta que las entidades que además de las artes escénicas (teatro y danza) desarrollen otro tipo de actividad como la música u otras, calcularán y consignarán únicamente la parte que corresponde a las artes escénicas. Así mismo, en caso de que una persona realice otras funciones además de las que son objeto de subvención, se deberá indicar únicamente la parte destinada a los programas subvencionables.

El importe de la subvención no sobrepasará, en ningún caso, el 70 % del gasto, ni la cantidad máxima de 21.000 euros.

Diru laguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehienezko muga horretara iristeko biderik uzten, diru laguntza bakoitza proportzioan murriztuko da, gastu diruz lagungarria eta balio espejean lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

Ematen diren diru laguntzen kopuruaren gehienezko muga izango da, betiere, eskatzaile bakoitzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako kopurua.

2. ERANSKINA

*Gipuzkoako udalerrietan arte eszenikoen eta musikaren alorretako emanaldien urteko programazioa eta arte eszenikoen sustapen egitasmoak garatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei zuzendutako diru laguntzak (Euskadiko Antzoki Sarea).*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da Gipuzkoako udalerrietan arte eszenikoak (antzerkia edo/eta dantza) eta musika hedatzeko urteko programazioari aurre egiteko, diru laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Diru laguntzaren xede izango dira:

a) Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten musika, antzerki eta dantza emanaldiz osatutako urteko programazioak.

b) Udal mailako arte eszenikoen sustapen egitasmoak, talde eszenikoen eta udal titulartasuna duten espazio eszenikoen arteko partaidetzan burututakoak.

Diru laguntzaren xede diren jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barnean burutu beharko dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

*2. Eskatzaileak, diruz lagungarri diren jarduerak eta baldintzak.*

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte ondorengo baldintzak betetzen dituzten Gipuzkoako udalek, nahiz udalen elkarteek (udalek zuzenean nahiz beraien menpeko erakundeen bidez jardun ahal izango dute):

a) Ekipamendu eszeniko iraunkor bat edukitzea (antzokia, auditorioa) proposatutako programazioaren beharretarako egokia dena eta indarrean dauden legeek eskatutako segurtasun neurri guztiak betetzen dituena, eta programatuko dituzten ikuskizunetarako erantzukizun zibileko asegurua edukitzea.

b) Parte hartuko duten konpainiak edo artistak kontratatzeko gastuei aurre egiteko behar adinako kontusaila edukitzea aurrekontuetan.

c) Programazio arduradun bat edukitzea gauzatuko diren programen antolakuntzako alderdi guztiak Euskadiko Antzoki Sarearekin koordinatzeko.

d) Emanaldien programaziora bideratutako diru laguntzak eskatzeko: Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituen ikuskizunen urteko programazioa (deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra doana) aurkeztea.

e) Udal mailako arte eszenikoen sustapen egitasmoetara bideratutako diru laguntzak eskatzeko: jarduera hauek barne hartuko dituen akordio, hitzarmen edo kontratu bat aurkeztea, talde eszeniko batekin (antzerki edo dantzakoa) edo gehiagorekin.

Diru laguntza hauek eska ditzakete halaber udal antzokien urteko programazioa eramateko udalarekin akordio edo hitzarmen bat daukaten irabazi asmorik gabeko entitateek. Horretarako beharrezkoa da oinarri hauetan ezarritako baldintzak era berean betetzea eta udalak programazioari zuzendutako ekar-

En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso, en función del gasto subvencionable y de la puntuación obtenida en la valoración.

En todo caso, la cuantía de las ayudas tendrá como límite máximo la cantidad solicitada por cada entidad a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

ANEXO 2

*Bases específicas por las que se regula la concesión de subvenciones a ayuntamientos y entidades culturales sin ánimo de lucro, para la programación anual de artes escénicas y música y programas de promoción de las artes escénicas de los municipios guipuzcoanos (Euskadiko Antzoki Sarea).*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular las condiciones de concesión de las subvenciones destinadas a financiar la programación anual de las áreas de artes escénicas (teatro y danza) y musicales de los municipios de Gipuzkoa.

Serán objeto de subvención:

a) La programación anual de actuaciones de música, teatro y danza que cumplan las condiciones establecidas en las presentes bases.

b) Los programas de promoción de las artes escénicas en el entorno local, realizados en colaboración entre compañías escénicas y espacios escénicos de titularidad municipal.

Las actividades objeto de la subvención, deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

*2. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.*

Podrán optar a estas ayudas los ayuntamientos o agrupaciones de ayuntamientos de Gipuzkoa, que cumplan los siguientes requisitos (los ayuntamientos podrán actuar directamente o bien a través de organismos dependientes de ellos):

a) Disponer de un equipamiento escénico estable (teatro, auditorio) y adecuado a las necesidades de la programación propuesta, que cumpla todas las medidas de seguridad exigidas por la legislación vigente, y que cuente con un seguro de responsabilidad civil para los espectáculos que se programen.

b) Disponer de la partida presupuestaria correspondiente para poder asumir los gastos de contratación de las compañías o artistas participantes.

c) Disponer de una persona responsable de programación que coordine con Euskadiko Antzoki Sarea todos los aspectos organizativos de los programas que se lleven a cabo.

d) Para optar a las ayudas a la programación de actuaciones: Presentar un programa anual (a realizar entre el 1 de enero y el 31 de diciembre del año de la convocatoria) de espectáculos que cumplan las condiciones que se especifican en las presentes bases.

e) Para optar a las ayudas a la promoción de las artes escénicas en el entorno local: Presentar un acuerdo de colaboración, convenio o contrato, con una o más compañías escénicas (de teatro y/o danza) que contemple la realización de dichas actividades.

También podrán solicitar estas subvenciones aquellas entidades sin ánimo de lucro que tengan un acuerdo o convenio con el ayuntamiento para llevar la programación anual de espacios teatrales municipales. Para ello será necesario que cumplan igualmente con las condiciones establecidas en estas bases y

EK\CV GAO-I-2018-05303

pen bat egitea. Honelakoetan lortutako diru laguntza ez da inola ere udalaren ekarpena baino handiagoa izango.

Udal elkarteek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 Foru Arauak 10. artikuluan dionari jarraituz, bai eskaeran bai diru laguntza emateko ebazpenean berariaz adieraziko da zein exekuzio konpromiso hartu dituen elkarteko kide bakoitzak eta zein den horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa, beraiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Halaber, zenbat udal elkartuta, hainbat ardurapeko aitorpen aurkeztu beharko dira: Udal bakoitzak berea.

3. *Baztertzeak.*

Diru laguntza hauetatik kanpo geratzen dira berariaz honako hauek:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren diru laguntza izendunen edo hitzarmenen xede diren musika eta arte eszenikoen programazioak, edo bere deialdietatik diru laguntza daukaten ziklo edo jaialdietako programazioa.

b) Aurreikusitako ikuskizunen katxet guztien batuketak 20.000 euroak gainditzen ez dituzten urteko programak.

c) Musika emanaldiz soilik osatutako programazioak.

4. *Diru laguntza modalitateak.*

A) Urteko programazioari zuzendutako diru laguntzetan, diru laguntza jasoko badute, emanaldiak modalitate hauetakoren batean sartu behar dira:

1. Arte eszenikoak: Urteko programazioak antzerki edota dantza emanaldien gutxieneko 6 ikuskizun desberdin izan beharko ditu.

2. Musika: Urteko programazioak gutxienez 4 kontzertu izan beharko ditu, eta horietatik bi euskararen lurraldeetako baten, hots Euskal Herrian, egoitza duten talde edo artistek ekoiztutakoak izan behar dute.

Bi modalitateetan, bai musika eta bai antzerki edo dantza ikuskizunen emanaldiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

— Artista edo talde profesionalek emandakoak izatea.

— Katxet kontzeptuan ordainduak izatea.

— 2. oinarrian zehaztutako ekipamendu eszeniko iraunkorretan gauzatzea.

— Doanekoak ez izatea ikusentzuleentzat.

Erakunde eskatzaileek diru laguntza lortu ahal izateko arte eszenikoen gutxieneko programazioa aurkeztu behar dute derrigorrez, musikarena berriz hautazkoa izanik.

B) Udal mailan arte eszenikoen sustapeneko egitasmoetara bideratutako diru laguntza eskatzeko, honakoak aurkeztu beharko dira: udal antzokiak eta euskararen lurraldeetako baten, hots Euskal Herrian, egoitza duen talde eszeniko batek edo gehiagok hitzartutako akordioa, bertan jasotzen direlarik honako edo antzeko jardurak: azpiegituren lagapena, dela antzokikoa nahiz beste espazio batzu, administraziorako, balio anitzetarako eta talde eszenikoak garatuko dituen jarduerak arte eszenikoen sustapen lana egiteko, hala nola ikastaro, tailer, sentsibilizazio jarduerak edota publikoen sustapena edota sorkuntza lana edo ekoizpen eszeniko baten altxaera.

que el ayuntamiento haga una aportación económica dirigida a la programación. En este caso la subvención resultante no podrá ser superior a la aportación municipal.

Cuando se trate de agrupaciones de ayuntamientos, en cumplimiento del artículo 10 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrá igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. Además, deberán presentar tantas declaraciones responsables como ayuntamientos integrantes de la agrupación.

3. *Exclusiones.*

Quedan excluidos expresamente de estas ayudas los siguientes programas o actividades:

a) La programación musical y de artes escénicas que sea objeto de una subvención nominativa de la Dirección General de Cultura del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como de ciclos o festivales que reciban subvención de otras convocatorias de esta misma institución.

b) En el caso de las programaciones anuales, aquellas en las que la suma de los cachés previstos no supere la cantidad de 20.000 euros.

c) Las programaciones que contengan exclusivamente actuaciones musicales.

4. *Modalidades de subvención.*

A) Para las ayudas a la programación anual, las actuaciones a subvencionar deberán ajustarse a las siguientes condiciones:

1. Programación de artes escénicas: El programa anual de teatro y/o danza debe constar de un mínimo de 6 espectáculos distintos.

2. Programación de música: El programa anual de música debe constar de un mínimo de 4 conciertos anuales, de los que 2 deberán ser producidos por grupos o artistas que tengan su sede en alguno de los territorios del euskera o Euskal Herria.

En las dos modalidades, tanto las representaciones de espectáculos escénicos como los conciertos deberán cumplir las siguientes condiciones:

— Que sean producidos por grupos o artistas profesionales.

— Que haya un pago en concepto de caché.

— Que tengan lugar en los equipamientos escénicos estables mencionados en la base 2.

— Que no sean de carácter gratuito para el público.

Las entidades solicitantes, para poder optar a la subvención deberán presentar obligatoriamente la programación mínima de artes escénicas, siendo opcional la de música.

B) Para solicitar las ayudas a los programas de promoción de las artes escénicas en el entorno local, se presentará uno o más acuerdos conveniados entre el teatro municipal y una compañía escénica con sede en alguno de los territorios del euskera o Euskal Herria, que contemple la realización de diversas actividades tales como: la cesión de uso a la compañía residente de instalaciones del teatro, de espacios para administración, salas polivalentes y la realización por parte de la compañía escénica de actividades de promoción teatral como cursos, talleres, actividades de sensibilización y promoción de públicos o la creación o alzado de una producción escénica.

EK\CV GAO-I-2018-05303

*5. Eskaerak ebaluatu eta laguntzak ematea.*

5.1. Urteko programazioari zuzendutako laguntzak:

a) Musika-ikuskizunetarako laguntza: Diru laguntza kalkulatzeko eskatzaileak aurkeztutakoen artetik katxet altuena duten 3 kontzertuak hartuko dira kontuan, horietarik bi euskararen lurraldeetako baten egoitza duten talde edo artistek ekoiztutakoak izango direlarik. Helburu honetarako erabilgarri dagoen aurrekontuzko kreditua eskatzaile guztien artean banatuko da, berdintasunean, muga hauekin: Emanaldi bakoitzaren katxetaren eta beharrezko ekipamentu teknikoa alokatzearen kostu osoaren batuketaren % 30, eta kontzertu bakoitzeko 3.000 euro gehienez.

Musika emanaldiei zuzendutako laguntzek eranskin honetako diru laguntza lerrorako dagoen aurrekontu osoaren % 15a gehienez ere hartuko dute. Lehen kalkuluaren arabera kopuru hau gainditzen bada, diru laguntza guztiak portzentualki jaitsiko dira. Aldiz, kreditua soberan geratuko balitz, kreditu hori automatikoki c) atalean deskribatzen den diru laguntza modalitatera pasako da.

b) Antzerki eta/edo dantza ikuskizunetarako portzentajezko diru laguntza. Erakunde eskatzaileek gehienez ere bi ikuskizun aurkeztu ahal izango dituzte modalitate honetara. Diru laguntza kalkulatzeko ikuskizun horien katxeta hartuko da kontutan, helburu honetarako erabilgarri dagoen aurrekontuzko kreditua eskatzaile guztien artean banatuko da, berdintasunean, muga hauekin: Emanaldi bakoitzaren katxetaren % 50, eta emanaldi bakoitzeko 3.000 euro gehienez.

Atal honetako laguntzek eranskin honetako diru laguntza lerrorako dagoen aurrekontu osoaren % 40a gehienez ere hartuko dute. Lehen kalkuluaren arabera kopuru hau gainditzen bada, diru laguntza guztiak portzentualki jaitsiko dira. Aldiz, kreditua soberan geratuko balitz, kreditu hori automatikoki c) atalean deskribatzen den diru laguntza modalitatera pasako da.

c) Antzerkia eta dantza ikuskizunetarako puntuen araberako diru laguntza. Aurreko ataletan sartu gabeko ikuskizunen emanaldiak honako puntuazio irizpideen arabera puntuatuko dira:

c.1. Ohiko programazio eszenikoa. Halakotzat hartuko dira hurrengo bi kategoriatan –itzulian dabiltzanak eta aparteko interesa duten ikuskizunak– sartzen ez diren programak. Puntuak emateko honako irizpide hauek erabiliko dira:

— 1.000 euro arterainoko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: Puntu 1.

— 1.001 eta 2.000 euro arteko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 2 puntu.

Eta horrela hurrenez hurren, katxeteko 1.000 € gehiagogatik puntu bat gehituko da, gehienez ere ikuskizun bakoitzeko 15 puntu arte.

c.2. Itzulian dabiltzan ikuskizunen programazioa: Itzulitzat hartuko da gutxienez aste betean hiru ikuskizun koordinatu egitea edo bi astetan lau egitea Euskal Autonomia Erkidegoko beste horrenbeste tokitan, baldin eta Erkidegoz kanpoko ikuskizunak badira. Halako ikuskizunei honako puntuazio hau emango zaie:

— 3.000 euro arterainoko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 4 puntu. Hurrenez hurren, katxeteko 1.000 € gehiagogatik puntu bat gehituko da, gehienez ere ikuskizun bakoitzeko 15 puntu arte.

c.3. Aparteko interesa duten ikuskizunen programazioa: Aparteko interesa duten ikuskizuntzat hartuko dira honako hauek: Euskara hutsean egindakoak, dantza ikuskizunak, Eusko Jaurlaritzaren ekoizpenerako diru laguntzak jaso dituztenak eta antzoki berean ikuskizun beraren emanaldi bat baino

*5. Evaluación de las solicitudes y concesión de las ayudas.*

5.1. Ayudas a la programación anual:

a) Subvención a las actuaciones musicales. Para calcular la subvención se tendrán en cuenta los 3 conciertos de mayor caché que presenten los solicitantes, de los cuales dos serán de los producidos por grupos o artistas que tengan su sede en alguno de los territorios del euskera. Se dividirá el crédito disponible a estos efectos entre todos los solicitantes de forma igualitaria, con las siguientes limitaciones: 30 % de la suma del caché y el alquiler del equipo técnico necesario para cada actuación, sin superar los 3.000 euros por concierto.

Las ayudas destinadas a este apartado de actuaciones musicales supondrán como máximo el 15 % del total del presupuesto disponible para la línea subvencionable de este anexo. Si con el primer cálculo se supera esta cantidad, se reducirán todas las aportaciones porcentualmente. Si por el contrario, resultara crédito excedentario, éste se incorporará automáticamente a la modalidad de subvención por puntos descrita en el apartado c).

b) Subvención porcentual al coste del espectáculo de teatro y/o danza. Las entidades solicitantes podrán presentar a esta modalidad un máximo de 2 espectáculos. Para calcular la subvención se tendrá en cuenta el de dichos espectáculos, dividiéndose el crédito disponible a estos efectos entre todas las entidades solicitantes de forma igualitaria hasta un máximo del 50 % del coste y con un importe máximo de 3.000 euros por espectáculo.

Las ayudas destinadas en este apartado supondrán como máximo el 40 % del total del presupuesto disponible para la línea subvencionable de este anexo. Si con el primer cálculo se supera esta cantidad, se reducirán todas las aportaciones porcentualmente. Si por el contrario, resultara crédito excedentario, éste se incorporará automáticamente a la modalidad de subvención por puntos descrita en el apartado c).

c) Subvención por puntos (teatro y/o danza). Los espectáculos no incluidos en los apartados anteriores se puntuarán en base a las siguientes tablas de puntuación:

c.1. Programación escénica ordinaria: Se considera dentro de este apartado toda aquella programación que no se contemple en las dos categorías siguientes (giras y programación de interés especial). Se puntuará de acuerdo al siguiente baremo:

— Cada espectáculo con caché hasta 1.000 euros: 1 punto.

— Cada espectáculo con caché entre 1.001 y 2.000 euros: 2 puntos.

Y así sucesivamente, por cada 1.000 € más de caché se contabilizará un punto más, con un máximo de 15 puntos por espectáculo.

c.2. Programación de espectáculos en gira: Se entenderá por gira la realización de por lo menos tres actuaciones coordinadas a lo largo de una semana o 4 en dos semanas, en todo caso en plazas diferentes dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco y con espectáculos de fuera de la misma. La programación de estos espectáculos recibirá la siguiente puntuación:

— Cada espectáculo con caché hasta 3.000 euros: 4 puntos. Sucesivamente, por cada 1.000 € más de caché se contabilizará un punto más, con un máximo de 15 puntos por espectáculo.

c.3. Programación de espectáculos de interés especial: Se consideran espectáculos de interés especial los siguientes: Los realizados íntegramente en euskera, los espectáculos de danza, los que hayan obtenido ayudas a la producción por parte del Gobierno Vasco y los que realicen más de una representa-


EK\CV GAO-I-2018-05303

gehiago eskaintzen dutenak. Azken hauen kasuan katxet bezala onartuko da emanaldi guztiengatik ordaindutako kopurua. Puntuak emateko honako irizpide hauek erabiliko dira:

— 1.000 euro arterainoko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 1,5 puntu.

— 1.001 eta 2.000 euro arteko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 3 puntu.

— 2.001 eta 3.000 euro arteko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 4 puntu.

— 3.001 eta 4.000 euro arteko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 6 puntu.

— 4.001 eta 5.000 euro arteko katxeta duen ikuskizun bakoitzeko: 7 puntu.

Hurrenez hurren, katxeteko 1.000 € gehiagogatik puntu bat gehituko da, gehienez ere ikuskizun bakoitzeko 17 puntu arte.

Eskatzaile bakoitzari dagokion diru laguntza baremo horietan lortutako puntuazioaren arabera kalkulatuko da. Puntu bakoitzaren balioa zein den jakiteko zatiketa egingo da: Deialdiko aurrekontuan ezarritako kontusailaren zenbatekoa zati eskatzaile guztiek lortutako puntuazioa; horrenbesteko diru laguntza emango da puntu bakoitzeko.

Eskatzaile bakoitzak atal honetan jasoko duen diru laguntza puntuaren balio ekonomikoa eta bakoitzak lortutako puntuen arteko biderkaketaren ondorioa izango da.

Atal honetako laguntzek eranskin honetako diru laguntza lerrorako dagoen aurrekontu osoaren % 25a hartuko dute hasieran. Baina beste ataletan aurreikusitakoaren arabera, kredituak soberan geratuko balira haietan, diru laguntza atal honi pasako dira

Bai musikan eta bai arte eszenikoetan, sarrera salmenten arabera kontratatzen diren ikuskizunak ez dira diruz lagunduko. Gutxieneko kopurua gehi sarreren arabera kontratatzen badira, berriz, ezarritako gutxieneko kopurua hartuko da katxet modura, eta horren arabera emango da puntuazioa edo ezarriko da dirulaguntza.

BEZa katxetaren barruan sartuko da, beti ere erakunde eskatzaileak ezin badu konpentsatu edo berreskuratu.

Oinarri hauek argitaratu baino lehen programatutako ikuskizunengatik ere diru laguntzak jasotzeko aukera izango da, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

5.2. Udal mailako arte eszenikoen sustapeneko egitasmoetara bideratutako laguntzak.

Atal honetako diru laguntza arte eszenikoen alorreko konpainia batekin edo gehiagorekin adostutako lankidetzan garatuko duten arte eszenikoen sustapeneko jardueren gastu-aurrekontuaren % 70 gehienez ere izango da eta 6.000 eurotako mugarekin.

Aurrekontu horretan honako kontzeptuak sartu ahal izango dira:

— Udal ekipamentuak erabiltzeak suposatutako gastuak.

— Jarduera ezberdinaz arduratzeko kontratatutako langileak.

— Jardueren zabalkunderako erabilitako materialak.

— Jardueren sortutako funtzionamendu gastuak.

— Konpainia eszeniko laguntzaileei egindako ordainketak.

Diru laguntza hau jarduera hontarako jasotako beste diru laguntza batzuekin bateragarria izango da, beti ere diru laguntzen baturak ez badu gastuen % 70a gainditzen.

ción en un mismo teatro. En este último supuesto se considerará como caché lo abonado por todas las representaciones en su conjunto. La puntuación a aplicar será la siguiente:

— Cada espectáculo con caché hasta 1.000 euros: 1,5 puntos.

— Cada espectáculo con caché entre 1.001 y 2.000 euros: 3 puntos.

— Cada espectáculo con caché entre 2.001 y 3.000 euros: 4 puntos.

— Cada espectáculo con caché entre 3.001 y 4.000 euros: 6 puntos.

— Cada espectáculo con caché entre 4.001 y 5.000 euros: 7 puntos.

Y así sucesivamente, por cada 1.000 € más de caché se contabilizará un punto más, con un máximo de 17 puntos por espectáculo.

En función de la puntuación obtenida por la aplicación de los mencionados baremos se calculará la subvención correspondiente a cada solicitante en este apartado. Se puntuará cada solicitud y se sumarán los puntos de todas las solicitudes presentadas y se dividirá el crédito de este apartado, más el que pudiera sobrar en su caso del resto de los apartados, entre la suma total de puntos de todas las solicitudes, determinando un valor económico por punto.

Cada solicitud recibirá la subvención correspondiente a multiplicar el número de puntos de cada solicitud por el valor económico de cada punto.

Las ayudas destinadas en este apartado supondrán inicialmente el 25 % del total del presupuesto disponible para la línea subvencionable de este anexo, sin perjuicio de la previsión existente en los restantes apartados respecto de posibles créditos excedentarios en los mismos.

Tanto en música como en artes escénicas, los espectáculos que se contraten exclusivamente «a taquilla» no se subvencionarán. En el caso de que se contraten por un mínimo fijo más taquilla, se considerará como caché el mínimo establecido y se puntuará o subvencionará según el baremo citado.

El IVA se considerará dentro del caché, siempre y cuando no sea susceptible de compensación o recuperación.

En el caso de espectáculos programados con anterioridad a la publicación de las presentes bases, se contemplará la subvención siempre que cumplan las condiciones establecidas por las presentes bases.

5.2. Ayudas a los programas de promoción de las artes escénicas en el entorno local.

La subvención de este apartado alcanzará hasta un 70 % del presupuesto de los gastos producidos por las actividades de promoción de las artes escénicas en colaboración con una o más compañías, con un límite de 6.000 euros.

En dicho presupuesto se podrán incluir los siguientes conceptos:

— Gastos producidos por la utilización de los equipamientos municipales.

— Personal contratado para atender las distintas actividades.

— Material de promoción de las actividades.

— Gastos de funcionamiento producidos por las actividades.

— Pagos a las compañías escénicas colaboradoras.

Esta subvención es compatible con otras ayudas recibidas para la misma actividad, siempre que la suma de las subvenciones no supere el 70 % del presupuesto total de gasto.

EK\CV GAO-I-2018-05303

Atal honetako laguntzek eranskin honetako diru laguntza lerrorako dagoen aurrekontu osoaren % 20a gehienez ere hartuko dute. Lehen kalkuluaren arabera kopuru hau gainditzen bada, diru laguntza guztiak portzentualki jaitsiko dira. Aldiz, kreditua soberan geratuko balitz, kreditu hori automatikoki 5.1 apartatuaren c) atalean deskribatzen den diru laguntza modalitatera pasako da.

3. ERANSKINA

*Diru laguntzen oinarriak, Gipuzkoan egindako ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko eta hedatzeko diru laguntzak emateko.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da Gipuzkoan, lokal publiko batean estreinatu aurreko edozein fasetan, garatutako ikus-entzunezko proiektuak ekoiztera eta hedatzera bideratutako diru laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Diru laguntzek berezko duten izaera dela eta, kanpo geratzen dira suntsikorra ez den ekipamendua eta materiala erosteko inbertsioen gastuak eta lokalak egokitzeko lanak.

*2. Eskatzaileak, diruz lagungarri diren jarduerak eta baldintzak.*

Diru laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte ondorengo baldintzak betetzen dituztenek:

— Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten pertsona físiko, irabazi asmorik gabeko entitateak nahiz enpresa pribatuak izatea, ikus-entzunezko proiektuak Gipuzkoan zuzenean garatzen badituzte.

— Oinarri hauen ondorioetarako, ikus-entzunezko lantzat hartuko da hirurogei minutu baino gehiagoko iraupena duena eta lokal publiko batean proiektatuko dena.

— Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, ikus-entzunezko jarduerekin zerikusia duen atalean izena emanda egotea, eta gainera, pertsona juridikoa denean, bere helburu edo gizarte xedea ikus-entzunezko jarduerekin zerikusia duena izatea.

— Gainera, diru laguntza jasoko duen proiektuak edo programak baldintza hauek bete beharko ditu:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatu beharko da.

— Ekonomikoki bideragarria izan behar du, eta hori gastuen eta diru sarreren aurrekontu orekatu baten bidez egiaztatu behar da, hau da, diru sarreren eta gastuen zenbatekoak baliokideak izango dira, eta diru sarreren atalean Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskatutako zenbatekoa zehaztuko da.

— Entitate, enpresa edo partikular eskatzaile bakoitzak ekoizpen proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

— Diru laguntzaren xede diren jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barnean burutu beharko dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

*3. Baztertzeak.*

Laguntza hauen eremutik kanpo gelditzen dira berariaz honako proiektuak:

a) Diru laguntza izenduna xedatua dutenak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste diru laguntza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentutik hiru urteetan diru laguntzak jaso dutenak.

Las ayudas destinadas en este apartado supondrán como máximo el 20 % del total del presupuesto disponible para la línea subvencionable de este anexo. Si con el primer cálculo se supera esta cantidad, se reducirán todas las aportaciones porcentualmente. Si por el contrario, resultara crédito excedentario, éste se incorporará automáticamente a la modalidad de subvención por puntos descrita en el apartado c) del apartado 5.1.

ANEXO 3

*Bases por las que se regula la concesión de subvenciones a la producción y difusión de proyectos audiovisuales realizados en Gipuzkoa.*

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones de concesión de las subvenciones destinadas a la producción y la difusión de proyectos audiovisuales, realizados en Gipuzkoa, en cualquier fase de producción previa al estreno en local público.

Por la propia naturaleza de las ayudas, quedan excluidos los gastos de inversión, tales como adquisición de equipamientos y material no fungible y acondicionamiento de locales.

*2. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.*

Podrán solicitar estas ayudas quienes cumplan los siguientes requisitos:

— Ser personas físicas, entidades sin ánimo de lucro o empresas privadas con domicilio social y fiscal en Gipuzkoa y que desarrollen directamente proyectos de producción audiovisual en Gipuzkoa.

— A los efectos de estas bases se tomará en consideración, como obra audiovisual, aquella que supere la duración de sesenta minutos y cuyo destino sea la proyección en un local público.

— Estar dadas de alta en el correspondiente epígrafe de las actividades audiovisuales del Impuesto de Actividades Económicas, y además, en el caso de las personas jurídicas, tener un objeto o fin social acorde con el desarrollo de actividades audiovisuales.

— Además, el proyecto o programa objeto de la subvención deberá cumplir las siguientes condiciones:

— Que se desarrolle en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Que sea viable económicamente, acreditando dicha viabilidad por medio de un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado, es decir, la cantidad de ingresos y la de gastos serán equivalentes, incluyendo, en el apartado de ingresos, la cantidad solicitada a la Dirección General de Cultura.

— Cada entidad, empresa o particular solicitante solo podrá presentar un proyecto de producción a esta convocatoria.

— Las actividades objeto de la subvención deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

*3. Exclusiones.*

Quedan excluidos expresamente de estas ayudas los siguientes proyectos:

a) Los que sean objeto de subvención nominativa.

b) Los que tengan inclusión más adecuada o expresa en otras convocatorias de ayudas del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Los que hayan recibido ayudas del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante tres años.

EK\CV GAO-I-2018-05303

d) Abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 9.2 artikuluaren arabera (Zinemaren Legea), X sailkapena duten filmei buruzko proiektuak.

*4. Esparrua.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzak egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan duten eta ikus-entzunezko arloan jarduten duten partikularrek, irabazi asmorik gabeko entitateek eta enpresa txikiek eska ditzakete, baldin eta 60 minutu baino gehiagoko iraupeneko ikus-entzunezko ekoizpenak Gipuzkoan egiteko asmoa badute eta ekoizpen hori lokal publiko batean proiektatzera bideratuta baldin badago.

*5. Eskaerak baloratu eta diru laguntza ematea.*

Oinarri hauen baldintzak bete eta bigarren oinarrian aipatutako jarduerak gauzatzen dituzten pertsona edo entitateek diru laguntza bat lortu ahalko dute.

Diru laguntzaren zenbatekoa ondorengo irizpideen arabera kalkulatuko da:

a) Proposamenaren kalitatea eta interesa, kontuan hartuta bere ikuspegi artistikoa eta Gipuzkoan urtean zehar izan den ikus-entzunezko ekoizpenaren barruan duen garrantzia; halaber, balioetsiko da kokalekuak Gipuzkoan izatea eta ekoizpenean Gipuzkoako talde tekniko eta artistikoek parte hartzea, eta baita ere horien ibilbide profesionalak. Gehienez 50 puntu, honela banatuta:

a.1) Kokalekuak Gipuzkoan izatea: gehienez 10 puntu, kontzeptu hauen arabera:

| *Kontzeptua* | *Haztapena* |
|---|---|
| Gehienbat Gipuzkoan filmatua | 10 |
| Eszena batzuk Gipuzkoan filmatuak | 5 |
| Ez dago kokaleku gipuzkoarrik | 0 |

a.2) Gipuzkoako talde teknikoak eta artistikoak: gehienez 10 puntu, taula honen arabera:

| *Kontzeptua* | *Haztapena* |
|---|---|
| Partaidetza handia ≥ % 50 | 10 |
| Partaidetza nabarmena ≥ % 30 | 5 |
| Partaidetza txikia < % 30 | 0 |

a.3) Deialdia argitaratu aurreko urtean Gipuzkoan izandako ikus-entzunezko ekoizpenaren barruan duen garrantzia: gehienez 30 puntu, irizpide hauei jarraituz:

| *Kontzeptua* | *Haztapena* |
|---|---|
| Gipuzkoan egindako ekoizpen bat dago edo ez dago inolako ekoizpenik | 30 |
| Gipuzkoan egindako ≤ 3 ekoizpen daude | 15 |
| Gipuzkoan egindako ≤ 5 ekoizpen daude | 5 |

b) Ikus-entzunezko ekoizpenean hizkuntza berritzaileak eta ikuspegi berriak erabiltzea: gehienez 20 puntu, kontzeptu hauen arabera:

| *Kontzeptua* | *Haztapena* |
|---|---|
| Proiektuan dauden hizkuntza berritzaileak | 10 |
| Ekoizpenean ikuspegi berriak erabiltzea | 10 |

c) Jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea:

Gehienez 15 puntu, ekoizpena euskaraz filmatu bada. Bestela, 0 puntu.

d) Emakumeen partaidetza ekoizpenean, talde tekniko eta artistikoetan: Gehienez 15 puntu, taula honen arabera:

| *Kontzeptua* | *Haztapena* |
|---|---|
| Partaidetza handia ≥ % 50 | 15 |
| Partaidetza nabarmena ≥ % 30 | 10 |
| Partaidetza txikia < % 30 | 0 |

Diru laguntza mota honetara bideratutako diru kopurua zatitu egiten da modalitate bakoitzean baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek lortutako puntu guztien artean. Hortik

d) Aquellos proyectos que, de acuerdo con el artículo 9.2 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre (Ley del Cine), reciban la calificación de película X.

*4. Ámbito.*

Podrán solicitar las subvenciones que las presentes bases regulan personas físicas, entidades sin ánimo de lucro o empresas privadas del sector audiovisual con domicilio social y fiscal en Gipuzkoa y que proyecten realizar producciones audiovisuales, de una duración mayor de 60 minutos, desarrolladas en Gipuzkoa, y cuyo destino sea la proyección en un local público.

*5. Valoración de las solicitudes y concesión de la subvención.*

Las personas y entidades que cumplan los requisitos y realicen alguna de las actividades subvencionables mencionadas en la base 2, podrán optar a una subvención.

La subvención será el resultado de la suma de los siguientes conceptos:

a) La calidad e interés de la propuesta desde el punto artístico y su importancia dentro la producción audiovisual guipuzcoana del año, valorándose la utilización de localizaciones en Gipuzkoa y la participación de equipos técnicos y artísticos guipuzcoanos, así como sus trayectorias profesionales. Hasta 50 puntos, repartidos de la siguiente forma:

a.1) Localizaciones en Gipuzkoa, hasta 10 puntos, valorándose en base a los siguientes conceptos:

| *Concepto* | *Ponderación* |
|---|---|
| Mayoritariamente rodada en Gipuzkoa | 10 |
| Algunas escenas rodadas en Gipuzkoa | 5 |
| No hay localizaciones guipuzcoanas | 0 |

a.2) Equipos técnicos y artísticos guipuzcoanos, hasta 10 puntos, según la siguiente tabla:

| *Concepto* | *Ponderación* |
|---|---|
| Alta participación ≥50 % | 10 |
| Participación considerable ≥30 % | 5 |
| Escasa participación <30 % | 0 |

a.3) Importancia dentro de la producción audiovisual guipuzcoana del año anterior a la publicación de la convocatoria, hasta 30 puntos, siguiendo los siguientes criterios:

| *Concepto* | *Ponderación* |
|---|---|
| Hay una o ninguna producción guipuzcoana equiparable | 30 |
| Hay ≤ de 3 producciones guipuzcoanas equiparables | 15 |
| Hay ≤ de 5 producciones guipuzcoanas equiparables | 5 |

b) La utilización de lenguajes innovadores y nuevos enfoques en la producción audiovisual, hasta 20 puntos, en función de los siguientes conceptos:

| *Concepto* | *Ponderación* |
|---|---|
| Lenguajes innovadores presentes en el proyecto | 10 |
| Nuevos enfoques en la producción | 10 |

c) El rodaje en euskera de la versión original de la película:

Hasta 15 puntos, obtenibles si el rodaje ha sido realizado en euskera. En caso contrario, 0 puntos.

d) La participación de mujeres en la producción, en los equipos técnicos y artísticos. Hasta 15 puntos, en función de la siguiente tabla:

| *Concepto* | *Ponderación* |
|---|---|
| Alta participación ≥50 % | 15 |
| Participación considerable ≥30 % | 10 |
| Escasa participación <30 % | 0 |

Se dividirá el gasto destinado para esta modalidad de subvenciones entre la suma total de puntos obtenidos por el conjunto de las solicitudes admitidas en cada una de las moda-

EK\CV GAO-I-2018-05303

ateratzen den zatidurak puntu baten balioa izango du eta, zein diru laguntza eman erabakitzeko, balio hori biderkatu egingo da erakunde eskatzaileak lortutako puntu kopuruaz.

Diru laguntzaren zenbatekoa ez da inoiz ere gastuen % 70 baino handiagoa izango, ez eta 40.000 eurotako kopurua baino handiagoa ere proiektu bakoitzeko.

Behin lehen banaketa egin ondoren, oinarri hauetan ezarritako mugak aplikatzearen ondorioz, soberakin bat gertatuko balitz, soberakin hori muga horiek gainditzen ez dituzten onuradunen artean modu berean banatu ahal izango da. Prozedura hau erabili ahal izango da aurrekontuzko partida amaitu arte.

Proiektu guztiek beste finantzaketa iturri batzuetatik, publiko nahiz pribatuetatik, lortu beharko dute aurkeztutako aurrekontuaren % 30eko finantzaketa, gutxienez.

Ematen diren diru laguntzen kopuruaren gehienezko muga izango da, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako kopurua.

lidades. La cantidad resultante será el valor del punto, que se multiplicará por el número de puntos obtenidos por la entidad solicitante para obtener la subvención correspondiente.

El importe de la subvención no sobrepasará, en ningún caso, el 70 % del gasto, ni la cantidad máxima de 40.000 euros por proyecto.

Si realizado un primer reparto, y debido a la aplicación de los límites establecidos por estas bases, se produjera un remanente, éste podrá ser redistribuido del mismo modo entre los beneficiarios que no superen dichos límites. Este procedimiento podrá aplicarse hasta agotar la partida correspondiente.

Todos los proyectos deberán contar con una financiación mínima del 30 % del presupuesto presentado, proveniente de otras fuentes de financiación, pública o privada.

En todo caso, la cuantía de las ayudas tendrá como límite máximo la cantidad solicitada a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2018-05303